

ATZO ETA GAURKO ZINE MUTUA
FAS ZINEKLUBAREN
2014KO BIGARREN HIRUHILEKOA AMAITZEKO

Bilboko **fas** zineklub-ak amaiera emango dio 2014ko bigarren hiruhilekoaren programazioari garai desberdinetako zine mutuaren barruan dauden bi maisulanekin: King Vidor-en *El gran desfile* (1925) eta Pablo Berger-en *Blancanieves* (2012).

- 2014ko **ekainaren 24an, asteartean, 19:45ean**, Indautxuko **El Carmen** aretoan **El gran desfile** (*The Big Parade*, King Vidor, 1925) proiektatuko dute, egilearen maisulanetako bat, 1914ko Gerrari omenaldia dena, eta aurten 100. urteurrena ospatuko da. Hauxe dugu zine mutuaren klasikoetako bat, eta Fas zineklubean ohikoa denez, aurkeztuko dugu **saio berezi batean, aretoan musika zuzenean duelarik**, Josetxo Fernández de Ortega piano jotzailearen eskutik.
- 2014ko **ekainaren 27an, ostiralean, 21:30etik aurrera, Olabeagako auzo zentroan**, eta Bilboko Udaleko Hezkuntza eta Kultura Sailarekin batera, Kalez kale eta Kultura barrutik programen bidez, Bilboko Fas zineklubak **Pablo Berger**-i eskainitako atzera begirako bat zeinetan ikusi ahal izango baita, sari asko jaso duen egilearen azken obra, **Blancanieves** (2012), aurretik bere lehen film laburra izango da **“Mama”** izenburukoa (1988). Saioa «Kanpoko Zinema Zikloaren» barruan kokatzen da, Fas zineklubak urtero Olabeaga auzoan antolatzen duena eta oraingoan **Pablo Berger zuzendaria bera** egongo da lana aurkezten. *Mama* film laburra, era berean, **«KORTeN! · fas laburmetraien zinemaldia»**, film laburren Zinemaldiaren barruan dago, zein Fas zineklubak antolatzen baitu; eta bertan saioetara doazen ikusleek osatzen dute Zinemaldiaren Epaimahaia. Kultura auzoetara hurbiltzeko eta hiritarrei dohainik eskaintzeko Fas zineklub eta *Kalez kale* programaren asmoa erakusteko, **saiorako sarrera doakoa da**.



Informazio gehiago:

Tel.: 944 425 344 · Fax: 944 205 198 · info@cineclubfas.com · www.cineclubfas.com · Twitter: @cineclubfas · Facebook: Cineclub Fas